

## EUSKAL HERRIA

### **GIBa zuten 6.000 pazientetik gora tratatu zituen Osakidetzak iaz eta 147 kasu berri antzman zituen**

Joan den urtean, Giza Imunoeskasiaren Birusak (GIB) erasandako 6.000 paziente baino gehiago tratatu zituen Osakidetzak, HIES eta STIko Euskal Planaren urteko Memoriak jasotakoaren arabera. Iaz, EAEn 147 infekzio berri erregistratu ziren, aurreko urtean baino 24 gutxiago. Horrek adierazten du 7,72 kasuko tasa dagoela 100.000 biztanleko.

Naiz|2020/07/29 11:25



Farmazietan test bizkorak egiteko aukera dago. (OSAKIDETZA)

HIES eta Sexu Transmiziozko Infekzioen (STI) Euskal Planaren urteko Memoriak jaso du iazko urtean Giza Imunoeskasiaren Birusak (GIB) erasandako 6.000 paziente baino gehiago zituela Osakidetzak. Zehazki Osakidetzak guztira 6.057 pazienteri eman zien arreta tratamendu antirretobiralekin eta Infekzio berriei dagokionez, 147 kasu berri erregistratu zirela jakinarazi du. Datu hau aurreko urtean antzemandakoak baino txikiagoa da (171) baina 2017an identifikatu zirenak baino gehiago antzman ziren iaz; 10 gehiago, hain zuzen ere.

2.040 GIB test bizkor egin ziren EAeko farmazietan eta hauetan 12 positibo antzman zituzten. Bestalde, farmaziek autotestak ere banatu zituzten etxean egiteko; 96 proba egin ziren GIB probetan espezializatutako kontsultetan; eta 129.080 xiringa-kit banatu ziren, 84 mila baino gehiago farmazietan eta 44 mila baino gehiago GKEen bidez.

2019 identifikatutako 147 kasu berriei erreparatuta, txostenak dio 7,72 kasuko tasa dagoela EAEn 100.000 biztanleko; puntu bat gutxiago Estatu osoko tasaren aldean.

### **Gizonezkoak, %83**

Hamarretik zortzi gizonei dagokie (%83) eta 38,7 urte dira pertsona diagnostikatuen batez besteko adina.

GIBagatiko infekzioa sexu-transmisiozko gaixotasun bat da batik bat, eta gizonengan – gizonekin sexua dutenengan– gertatzen da oraindik transmisiorik handiena, diagnostiko guztien %57,8 (2018an % 56,2). Heterosexualengan, %38,8koa da transmisioa (2018an %32,6).

Kasuen erdietan berantiarra izan zen diagnostikoa, hau da, sistema immunitarioa oso kaltetua zegoenean detektatu ziren, 350 CD4 zelula baino gutxiagorekin.

Errealitate epidemiologiko horren aurrean, Osasun Sailak eta Osakidetzak azpimarratu dute Hies eta STI-ko Euskal Planean jasotako ekintza-lerro guztiak erabat aktibo mantentzearen premia.

### **Sexu-transmisiozko infekzio gehiago**

Sexu-transmisiozko infekzioen 3 kontsulta espezifiko ditu Osakidetzak, Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Kontsulta horietan, munduko joerarekin bat etorritik, 2019an gehikuntza bat egon zen diagnostikoetan.

711 chlamydia kasu identifikatu dira; hau da, 2018an baino %18,7 gehiago. Herpes genitalen kasuan ere igoera nabarmena izan da, %66,7 kasu gehiago identifikatu baitira, 260 guztira.

Infekzio gonokoziko 412 kasu antzeman ziren iaz, 2018an baino %16 gehiago eta 249 sifilis goiztiar, %35,3 gehiago aurreko urtearekin alderatuta